



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBEN ORDUTEGIA – 2016 URTEA

Ohiko deialdia:
Ezohiko deialdia:

ekainaren 8, 9 eta 10ean
uztailaren 6, 7 eta 8an

	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	
08:45 – 09:00	Aurkezpena			
09:00 – 10:30	Gaztelania eta literatura	Diseinua Literatura unibertsala Matematika II	09:00 – 10:30	Atzerriko hizkuntza
10:30 – 11:15	Atsedena dia		10:30 – 11:15	Atsedena dia
11:15 – 12:45	Filosofiaren historia Espainiako historia	Lurraren eta ingurumenaren zientziak Ikus-entzunezko kultura Enpresaren ekonomia	11:15 – 12:45	Euskara eta literatura
12:45 – 15:00	Atsedena dia		12:45 – 13:30	Atsedena dia
15:00 – 16:30	Fisika Latina II Musikaren eta dantzaren historia	Marrazketa teknikoa II Geografia Analisi musikala II	13:30 – 15:00	Marrazketa artistikoa II
16:30 – 17:15	Atsedena dia			
17:15 – 18:45	Biologia Elektroteknia Grekoa II Gizarte zientziei aplikaturiko matematika II	Artearen historia Kimika Industria-teknologia II		

AURKEZPENA

Fase orokorreko azterketa egiten duten ikasle guztiak joango dira aurkezpenera. NAN edo beste identifikazio agiri baliagarri bat eraman beharko dute, eta matrikularen gordekina. Matrikulatuta ez daudenei ez zaie azterketa gelan sartzen utziko.

Aurkezpenean proba egiteko azalpenak emango dira, eta kodeen orria emango zaie ikasleei. Begiratu beharko dute ea matrikulako datuak ondo dauden (izena, NAN zk., ikastetxea, zein gairen azterketa egingo duten...). Akatsik egonez gero, lehen atsedendian esan beharko diote epaimahaiari. Ez da onartuko aldaketarik matrikulan ez bazaio epaimahaiari eskatu asteazkeneko 13:00ak baino lehen.

FASE ESPEZIFIKOA BAKARRIK EGINGO DUTEN IKASLEAK

Epaimahaiaren aurrera joan beharko dira kodeen orria hartzeko lehen proba baino 15 minutu lehenago. NAN edo beste identifikazio agiri baliagarri bat eraman beharko dute, eta matrikularen gordekina. Matrikulatuta ez daudenei ez zaie azterketa gelan sartzen utziko.

BI GAI EDO GEHIAGOREN AZTERKETA ORDU BEREAN DUTEN IKASLEAK

Probak bata bestearen ostean egingo dituzte, ikasgelatik irten gabe, epaimahai berarekin eta dagokien egunean. Azterketa biak bigarren orduan (11:15 edo 17:15) badira, lehenengo orduko azterketak (09:00 edo 15:00) hasi baino 15 minutu lehenago bertaratuko dira.

MARRAZKETA ARTISTIKOA II

Marrazketa Artistikoa II-ko azterketa, bere ezaugarri bereziengatik, Leioako Campuseko Arte Ederren Fakultatean egingo da ostiralean. Azterketa hau egiten dutenek toki hauetan egingo dituzte Atzerriko Hizkuntzako eta Euskara eta literaturako azterketak:

- Egoitza Leioako Campusa duten epaimahaietako ikasleek, beren epaimahaiarekin.
- Gainerako ikasleek, Leioako Irakasleen Unibertsitate Eskolan.

MARRAZKETA TEKNIKOA II

Marrazketa Teknikoa II-ko azterketa egiteko, ikasleek behar duten materiala ekarri beharko dute: arkatza, eskuaira, kartaboia eta konpasa.

MUSIKA

Musikaren eta Dantzaren Historiako azterketarako eta Musika Azterketa II-ko azterketarako ikasleek CD jogailua eraman beharko dute.

MUGIKORRAK

Mugikorrak eta gailu elektroniko guztiak **itzali egin behar dira** azterketa gelan sartu baino lehen.